

| **Gogoeta** *Irla batean neu bakarrik*

Robinson Crusoe eleberria irakurria zenuen, eta istorioak zirrara handia eragin zizun. Gainera, lehengo batean istorio horretan oinarritutako filma ikusi duzu.

Pentsatzen jarri zara:

Neuri gertatuz gero? Irla galdu batean neu bakarrik...

Gogoeta, zeure buruari zuzendua: zelan moldatuko?, nola iraun bizirik?

Ura, janaria, arriskuak...? Ez telefonorik, ez telebistarik, ez ezer.

Gutxienez, **150** hitz

Baldintza: abiapuntua izan dadila ondoko esaldia. Alegia, hori idazten hasi eta horri eman jarraipena.

Irla batean neu bakarrik suertatuko banintz,



EGA.ID

Idazlan ereduak

Laburra 1: *Irla batean*

Irla batean 1

Irla batean neu bakarrik suertatuko banintz,

_____ orduan bai pagotxa! Orduan bai, akabo leku guztietara berandu iritsi beharra, gurasoek diotena ez egitearren etengabeko eztabaida, azterketen aurreko estresa, osteko penak...

Irla batean bakarrik suertatuko banintz, biluzik jarriko nintzateke hondartza bazterrean, itsasoari so, olatuen joan-etorriak markatu denboran, lasai, eguzkia noiz joango zain. Ilundu ahala, aurrez prestaturiko sutan egingo nuke neronek arrantzuriko arrain goxoa. Edo ez, txangurroa jango nuke, irila horretan ziur badirela txangurroak, baita karramarro eta txirla goxoak ere.

Bapo afaldu ostean, bertan etzan eta, gauaren mantu beltza lagun, harrapatuko ninduke loak, mantso eta goxo. Hurrengo goizean, iratzargailurik gabe, aitaren garrasiak gabe (horiek bai garrasiak!) esnatuko nintzateke. Eta gero... Eta gero, zer egingo nuke, ba, gero? Bada, baliteke nire lagunek eskolan egiten ariutako liratekeen ariketa horretan edukitzea goxoa.

Akaso, amak mimo handiz gosaltzeko prestatzen didan txokolatea faltan botako nuke. Baita ama ere, jakina. Beharbada ○ txolindurik naukan neskak horrek ere aztoraturik izango ninduke goizeko lehen orduetan. Bera ikusteko beharraz, igeri egiteari ekingo nioke, ziur...

Irla batean bakarrik suertatuko banintz..., berandu baino lehen etxera itzultzeko gogo bizia izango nukeela uste dut; izan ere, primeran bizi bainoiz hemen!

dekl

d erg

P

EGA.ID

Idazlan ereduak

Laburra 1: *Irla batean*

Irla batean

Idazlan laburra 1

Kalifikazioa:

9

Aztertzaileren zehaztasunak: +1, 2,6,7,9,11,12,13,15

EGOKITASUNA/ EDUKIA:

3

Atazak eskatu diona oso ondo bete du: hitz kopurua bete du eta informazio ugari eta oso aberatsa eman du bere gogoeta egiteko. Testu-generoari dagokionez, egoki aukeratu du generoa. Oso erraz eta atseginez irakurtzen da.

MOLDEA. KOHESIOA
ETA KOHERENTZIA:

3

Lexiko oso aberatsa eta egokia erabili du. Esapideak eta ñabardura ugari erabili ditu testuan zehar. Hizkuntzarekin jolas egin du. Egitura oso aberatsak erabili ditu une oro, eta adierazi nahi duena zehaztasunez eta ñabarduraz adierazi du. Ideien hurrenkera oso egokia da. Ideien arteko lotura oso egokia da eta aditz kohesioa, denbora, aspektua eta modua oso egoki erabili ditu. Puntuazioa oso egokia da, ideiak lerrokatetan ondo bildu ditu, eta irakurtzea oso erraza gertatzen da.

ZUZENTASUNA:

3

Testu oso zuzena eta aberatsa da. Akats oso gutxi eta oso txikiak ditu. Ortografian ere bikaina da.

Irla batean 2.1

Irla batean neu bakarrik suertatuko banintz,

_____ hasiera batean bidurrez airean egongo nintzateke. Une larrienak pasata, denbora bat emango nioke nire buruari hurrengo urratsak pentsatzeko. Lehenetasunak sailkatuko nituzke: janaria, aterpea eta sua nola lortu adibidez. Irla exploratu beharko nuke bere kokapena ezagutzeko baina baita eskeintzen dizkidan errekurtsioak ezagutzeko ere.

lex. Bizirauteko oinarritzkoak asetu ondoren, beldurra agertuko litzateke nire buruan berriro ere, bakardadeari beldurra, hain zuzen ere. "Zerbait gertatu ezkezo nora joko dut laguntza eske? Zereginak bukatzen zaizkidanean, zertan emango dut denbora? Nori azalduko dizkiot nire burutazioak?" Normala iruditzen zait Robinson Krusoek koko bat hartu izana lagun modura. Pentsamendu haueetatik abiatuta, aurreko bizitzaren gogoeta egiten hasiko nintzateke. Bizitoki ohiturei buruz pentsatzeko nuke. Kontzientzia hartuko nuke gure gizartean inposatuta dagoen sistemaz, sistema kapitalistaz eta patriarkalaz hain zuzen ere: Behar ez ditugun zenbat gauza erosten ditugun, alfer-alferrik, gizarteak behartuta; diruak daukan garrantzia; harreman eredu espezifiko batek eta laneko lehiakortasunak jendea egiten dizkion kalte izugarriak ...

Segit. "Eta ni hemen, irla baztertu batean diru gabe bizirauteko errekurtsio nahikorekin nire buruari bueltak ematen".

Khr.:
Nahasia.
Zerrendatze desorekatua.

Irla batean

Idazlan laburra 2

Kalifikazioa: **5**

Aztertzaileen zehaztasunak: + 2,4,8,10,15

-5,12

EGOKITASUNA/ EDUKIA: 1,5

Eskatu zaion hitz kopurura bete du. Atazak eskatu diona ondo bete du. Testu genero egokia erabili du. Nahikoa informazio eman du bere gogoeta egiteko, nahiz eta noizbait informazio hutsuneren bat izan. Testua lehenengo irakurraldian ulertzen da.

MOLDEA. KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 1,5

Lexikoa egokia da, erabat zehatza edo goi mailakoa ez bada ere. Oinarritzko egiturak egoki erabili ditu, nahiz eta egituretan aberatsa ez izan. Bere lehen-hizkuntzaren eragina ezagun du erabili dituen zenbait egituretan: ... *nire buruari bueltak ematen*... Aditza (aspektua, denbora eta modua) egoki erabili du eta ideiek badute hari logikoa, bigarren paragrafoaren azkeneko zerrendatzean izan ezik.

ZUZENTASUNA: 2

Oro har, gramatikaren oinarritzko arauak egoki bete ditu. Akatsak baditu, gehienetan bere lehen-hizkuntzaren ondorio direnak, kalkoak, baina gutxi dira eta ez dira sistematikoak. Esaldien egitura zuzena da eta hitzen ordena egokia. Ortografia akatsen batzuk baditu, baina ez dira larriak.

Irla batean 3

Irla batean neu bakarrik suertatuko banintz, _____

_____ zer egingo nuke? Irla galdu batean neu bakarrik egongo banintz, lehenengo egunak negarrez pasatuko nituzke. [Negarrez utzi] ezinik eta kaka praketan irlaren barruan sartuko nintzateke jakiak bilatzeko. Jakiak bilatuta eta irla ezagututa begien malakoak bukatuko lirateke. Ondoren, hasiko nintzateke bizitzeko etxetxo bat eraikitzen.

dekl / P
S egit. / P
P/dekl

a denb
S egit. /
d erg

a denb
S egit.

Bestalde, [kokotaraino nengoke eltxoak eta hango ezpezie bereziak uxatzeaz.] Filma batean ikusiko nuen bezala, laguntza hitza lurrean jarriko nuke, edonor negazkin batean pasatuz gero, ni ikusteko. Beste gauza garrantzitsu bat sua sortzea da. [Jakingo nuke, sua egitea ez litzateke batere erraza izango.] Baina txikitari eskaut taldean ikasi nuen bezala, bi adar hartuko nituzke, eta orduak eta orduak emango nituzke sua piztu arte. _____

Khr.:
nahasia,
kontraesana?

Moldea.
Erregistroa.

[Argi izango nuke, bizitza ez litzateke bukatuko,] eta edozein mementuan, aurreko bizitzara bueltatu ahalko nintzateke. Gakoa legoke itxaropena ez galtzeaz eta maite nauen jendeaz egunero oroitzeaz. Ahalegin hori eginda, batek daki! Argian paradisuan egongo nintzateke, eta inoiz ez nuke neure aurreko bizitzara bueltatu nahi izango. A _____

Argi _____

d mgg./
lex.
a denb.
dekl.
dekl.

Irla batean

Idazlan laburra 3

Kalifikazioa:

3,5

Aztertzaileen zehaztasunak: +

-2,5,6,8, 11,15,16,17,18

EGOKITASUNA/ EDUKIA:

1

Eskatu zaion hitz kopurua bete du. Ez dio behar bezala erantzun atazari. Tarteka informazio hutsuneak ditu eta zenbait pasarte interpretatu egin behar dira. Puntuazio desegokiak zaildu egiten du ulermena. Esate baterako, "Beste gauza garrantzitsu bat sua sortzea da. Jakingo nuke, sua egitea ez litzateke batere erraza izango" "Argia izango nuke, bizitza ez litzateke bukatuko...."

MOLDEA. KOHESIOA
ETA KOHERENTZIA:

1-

Lexikoa oinarritzakoa izanda ere, egokia da atazak eskatu diona betetzeko. Ideiek badute hari logikoa, baina puntuazio desegokiak eta pasarte ilunen batek eragotzi egiten diote ulermena irakurleari.

ZUZENTASUNA:

1,5

Akats larriak ditu deklinabidean, aditz baten erregimenean, aditz kohesioan, aditz aspektuan ... Egitura mailako akatsak ere baditu, eta akats horiek ilundu egiten dute testua: "negarrez utzi ezinik..."; "begien malakoak bukatuko lirateke"; "kokotaraino negoke" "...edonor... ni ikusteko"; "gakoa legoke ... ez galtzeaz" ...